

azpeitianzer?

udal aldizkaria

140. zenbakia
2011ko ekaina

Antzoki
zaharraren itzulera

ale honetan zer?

- 3 Udal zerbitzua eta erabakiak
- 4 Proposamenak eta kexak
- 5 Hauteskundeak
- 6 Udal Euskaltegia
- 7 Loiola Berrikuntza Fundazioa
- 8 Erreportajea
- 10 Bakardadearen kapera
- 12 Motxean
- 14 Agenda
- 16 Liburu bilduma

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala
Egilea: Prentsa bulegoa
Argazkiak: EREGI, Euskara eta Komunikazioa

Diseinua: EREGI, Euskara eta Komunikazioa
Ale kopurua: 7.000
L.G: SS - 1148/91

Azpeititik kanpo bizi
arren, zure etxean jaso
dezakezu Azpeitian Zer?
aldizkari hau posta bidez.
Egin eskaria 943 15 71 85
(Alkatetza) telefonon.



telefono interesgarriak

Zentralita	943 15 72 00	Euskara Patronatua	943 81 45 18	Bailarako Nekazari	
Alkatetza	943 15 71 85	Udal Euskaltegia	943 81 19 47	bulegoa	943 81 24 85
Idazkaritza	943 15 71 98	Lapatx Zabortegia	943 15 18 75	Enplegu bulegoa	943 15 03 00
Kontuhartzaitza	943 15 71 89	Azpeitia Lantzen S.A.	943 15 71 83	1. Epaitegia	943 02 51 91
Hirigintza	943 15 71 91	Ingurugiro Etxea		2. Epaitegia	943 02 51 92
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92	Fundazioa	943 15 17 13	Erregistro Zibila	943 02 51 99
Kultura	943 15 70 68	Tokiko Agenda 21	943 15 70 70	DYA	943 46 46 22
Komunikazioa	943 15 79 82	Kontsumitzaileen		Gurutze Gorria	943 85 32 97
Kirolak	943 15 00 95	Informaziorako bulegoa	943 15 71 93	S.O.S. Deiak	112
Parekidetasuna	943 15 79 28	Baigera I	943 81 44 64	Taxiak	943 81 13 07
Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79	Baigera II	943 81 23 89	Urkome	943 81 65 00
Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16	Ingurugiro Etxea			
Zapo Txoko	943 15 71 61	Museoa	943 81 24 48	Sexologia zerbitzua	943 15 10 30
Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60			Etxebizitza bulegoa	943 81 66 99
Eguneko Zentroa	943 15 74 96	Alkoholiko Anonimoak	629 14 18 74	Astearte eta ostegunetan	
Liburutegia	943 15 71 95	AL-ANON Alkoholikoen		18:30etik 19:00etara eta asteazkenetan	
Udaltzainak	943 15 13 13	Sendiak	943 47 54 03	12:00etatik 14:00etara.	
Suhiltzaileak	112	Trenaren Museoa	943 15 06 77	Baserritarren produktuen	
Igerilekua	943 81 41 21	Anbulatorioa	943 02 54 00	merkaturatze bulegoa	943 15 10 29
Kiroldegia	943 81 30 69	Larrialdiak	943 02 54 01	Astearteetan 10:00etatik 13:30era eta	
Izarraitz Pilotalekua	943 81 25 63	Ertzaintza (Azkoitia)	943 08 37 80	ostegunetan 16:00etatik 19:30era.	

Udal zerbitzuak

Udal Agiritegia



Ordutegia

Azpeitiko Udal Agiritegi zerbitzua udaletxeko hirugarren solairuan kokatzen da eta astelehenetan, asteartetan, ostegunetan eta ostiraletan 09:00etatik 13:00etara zabaltzen da.

Telefonoa

Harremanetarako telefonoa
943 15 71 91 da.

agiritegi zerbitzua, Udaleko dokumentuen zaintza, Udalak sortzen eta jasotzen dituen dokumentazioaren kudeaketaz arduratzen da. Artxibategiaren lanen artean aurkitzen dira, besteak beste, dokumentuen kontserbazioa eta hauek duten informazioaren zerbitzua, antolaketa eta deskribapena.

Udal Agiritegi zerbitzuak bilduta dituen dokumentu guztiak azpeitiarren eta

publiko orokorraren eskura uzten ditu. Modu honetan, artxibo historikoan dauden agiriak eskuratzeko bi modu daude; udaletxean zuzenean edota artxiboorokorra@azpeitia.net helbide elektronikoan. Administrazio mailako dokumentazioa kontsultatzeko orduan, berriz, eta 25 urte baino gutxiago duten agirietan herritarrek sail bakoitzeko bulegoan edota erregistro orokorrean instantzia sartuz egin dezakete.

Udal erabakiak

Ekainaren 2an Udalbatza osoak egindako bilkuran hartu ziren erabakiak honako hauek izan ziren:

- 1.- 2011ko maiatzaren 5ean egindako bilkuraren akta onartzea.
- 2.- Izarra eremuko jabekideekin egindako hitzarmenaren egokitzapena onartzea.
- 3.- Zinegotzien interesaen erregistroa.
- 4.- Azpeitiko "San Agustin Kultur Gunea" kultur jardueretarako etxearen kudeaketa eta ustiapena: esleipenaren berrespena.
- 5.- Alkatetzak eman dituen ebazpenen berri ematea (idazkaritzan daude).
- 6.- Galdera eta erreguak.

Bestalde, ekainaren 10eko Udalbatzak hartutako erabakiak ondorengoak izan ziren:

- 1.- 2011ko ekainaren 2an eta 2008ko maiatzaren 8an egindako bilkuren aktak onartzea.
- 2.- 2010. ekitaldiko Udaleko Kontu Orokorra onartzea.
- 3.- Anardi eremurako ordenazioa erabakitzekeko hitzarmena: hasierako onarpena.
- 4.- Agirre eremuan alokairuan jarriko den 5C etxebititza kupo orokorrera pasatzeko akordioa.
- 5.- Alkatetzak eman dituen ebazpenen berri ematea (idazkaritzan daude).
- 6.- Dagokigun akta onartzea.

Eskaerei erantzunez



Irakokizuna

Badirudi Matxinbenta auzoko ur zikin guztiak errekarera doazela zuzenean, eta bizi guztian horrela izan da. Baina kontuan izanik km/m gutxitara erreka hortako urak Ibai Eder urtegitara doazela eta handik guk ur hori edaten dugula, ez zait iruditzen batere legikoa ur horiek jaso gabe egotea eta tratatu gabe urtegitara joatea. Ba al dago ur horiek bilduko dituen kolektore bat egiteko asmorik? Eta baiezkoa bada, noiz?

Xabier Mujika Salegi

Erantzuna

Nahiz eta bertako urak Oñazko depuradorara eramaten diren tratatzeko, kolektorea jartzea nahi da komunitateko urak jasotzeko, azterketa guztiak eginda daude eta aurrekontuaren zain gaude. Hala ere, ez dakigu noiz egingo den

Iñaki Etxezarreta. Zinegotzia.

Irakokizuna

Santutxo sarrerako espaloia guztiz puzkatuta dago eta txakur-kakaz beteta egoten da.

Erantzuna

Lanak egiteko asmoa dago gune horretan; aparkalekuak zabaldu, espaloia txukundu...

Iñaki Etxezarreta. Zinegotzia.

Irakokizuna

Mesedez, zeraibide bat jarri Goiko kaleko haur parke berriko sarrera-irteeran. Autoak, bi aldeetan bideratzen dira-eta kolpean.

Erantzuna

Guztia zeraibidea dela kontsideratzen da, oinezkoek dute lehentasuna eta autoek poliki joan behar dute. Hala ere, aztertuko da.

Iñaki Etxezarreta. Zinegotzia.

Irakokizuna

Dudarik gabe, azken aldian Azpeitiko zenbait kaleetan obra asko egin dute; Garmendipe, Jose Artetxe... Kaleak ederki gelditu dira. Baina ni bizi naizen kalea, Pablo VI, nahiz eta oso transitatua izan eta zentrikoa, iruditzen zait guztiz abandonatuta dagoela, a ze espaloiak ditugunak, zuloz beteak. Ea zerbait egiterik dagoen.

Erantzuna

Jakinekua da, aztertua dago eta egitekoen zerrendan dago.

Iñaki Etxezarreta. Zinegotzia.

Irakokizuna

Loiolabideko zubipeko bidean mesedez ispiluak jarri, izan ere, tunelera sartzerakoan edo irtetzerakoan norbait badator ez da ikusten eta adibidez, norbait bizikletan edo badator, arriskutsua geratzen da.

E. A.

Erantzuna

Bizikletek ezin dute hortik pasa, errepidetik joan behar dute.

Iñaki Etxezarreta. Zinegotzia.

Irakokizuna

Orain dela hiru bat urte Soreasu Kulturguneko eraikinaren lanak hasi berrikan, obran zebiltzanetako kamioi batek auzuneko etxe bateko paretaren ondoan zeuden bi bankuetako bat puskatu zuen. Ordutik, banku bakar bat dago. Soreasuko auzotarrok etxekeko paretaren babesean atseginez igarotako eserialdiekin gozatu eta atseden hartzeko parada eginez jarraitu nahi dugu. Hori

dela eta, bizilagunak eskatzen dugu bankua jartzea berriro ere, lehen zegoen lekuan.

Soreasuko bizilagunak

Erantzuna

Lanak bukatutakoan jarriko da.

Iñaki Etxezarreta. Zinegotzia.

Irakokizuna

Basuren kontainerren egoera benetan penagarria da. Oso gaizki daude, zaharrak dira, ez dira garbitzen etabar. Adibidez, Euskal Herria 9 etxearen parean dagoenaren egoera lotsagarria da. Seguraski, udaletxeak esango du dirurik ez dagoela. Lorak aldatzeko eta jardinak zaintzeko itxuraz nahiko diru badago, eta azkenean zertarako? Jarinak txakurren komun publikoak besterik ez dira. Txakurren jabeek duten aurpegia (gehienak) oso handia da; bestaldera begira ari direnean, disimulatzen, beraien txakur maiteek "oparia" lagatzen dute. Isunak jartzen hasi eta orduan jabeek ikasiko dute edukazio pixka bat. Kontainerrekin itzuliz, ez daude denak aldi berean aldatu beharrik, baina ez litzateke gaizki egongo pixkanaka aldatzen joango balira.

Erantzuna

Berritu beharrean daude kontainerrak, egoera txarrean baitaude, baina bilketa Mankomunitatearen esku gelditu da eta laister ontzi handiagoetara igaroko gara

Iñaki Etxezarreta. Zinegotzia.


Irakokizuna

Padeleko pistak estali beharko lirateke euria egiten duenetan ere jolasteko. Gainera, lur artifiziala ez litzateke izorratuko.

Erantzuna

Gure asmoen artean aurkitzen da padeleko pistak estaltzea baina egungo egoera ekonomikoa ez da hoberena.

Kirol saila



Azpeitiko alkatetza Bildu koalizioak eskuratu du, gehiengo osoarekin

Eneko Etxeberria izango da alkate berria ekainaren 11ko kargu-hartzearen ondoren

bildu koalizioak eskuratu du, gehiengo osoarekin, Azpeitiko alkatetza. Maiatzaren 22 izan ziren Udal eta Foru hauteskundeetan 7.960 boto jaso ziren guztira eta abstentzioa %27,89koa izan zen, gainera 138 boto zuri eta 64 baliogabe egon ziren.

Alderdi bakoitzak jaso zituen boto kopuruari dagokionez, Bilduk 4.333 boto jaso zituen (%57), EAJ-PNV bigarren alderdia izan da 2.219 botorekin (%29) eta hirugarren Hamaikabat izan da, 483 botorekin (%6). Aralarrek, PSE-EE eta PPk 325 boto, 213 boto eta 185 boto lortu dituzte, hurrenez hurren, eta ondorioz, ez dute zinegotzirik eskuratu.

Modu honetan, Eneko Etxeberria da alkate berria ekainaren 11ean egin den kargu-hartze ekitaldiaren ostean, eta alderdi bakoitzak ondorengo zinegotziak izango ditu:

Bilduk 11 zinegotzi

1. Eneko Etxeberria
2. Mikel Gotzon Ibarzabal
3. Leire Etxaniz
4. Ignacio Joaquín Portilla
5. Ainhoa Beristain
6. Manuel Unanue
7. Aritz Epelde
8. Maria Concepcion Martija
9. Imanol Amenabar
10. Maria Jose Iturria
11. Juana Jauregi

EAJ-PNV alderdiak bost zinegotzi

1. Jesus Maria Larrañaga
2. Nerea Alday
3. Aitor Gorrotxategi
4. Itziar Lasa
5. Onintza Etxeberria

Hamaibatek zinegotzi bat

1. Aitor Aranguren



EGA eta HABEren 3. maila tituluak ateratzeko bi ikastaro antolatu dira

Interesatuak izena lehenbailehen eman behar dute Azpeitiko Udal Euskaltegian

azpeitiko Udal Euskaltegiak, urtero egiten duen udarako eskaintzaren baitan, baliokideak diren HABEren 3. maila eta Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) titulu ofizialak eskuratzeko ikastaro zehatzak egiteko aukera eskainiko die herritarrei.

Arduradunek agertu dutenez, ikastaroak herriko ikastetxeetako ikasleei zuzenduta daude bereziki, eta behin ikastaroak amaitutakoan, baldintzak betetzen dituzten ikasleek, EGA azterketara nahiz HABEren 3. mailakora aurkezteko aukera izango dute.

Azpeitiko Udal Euskaltegiak udan emango dituen ikastaroak gutxienez 80 ordukoak izango dira, horrela, aurtengo egutegia eskuetan hartuta, guztira 104 klase orduko bi ikastaro eskainiko ditu. Beraz, parte hartzen duten ikasleek lehen ikastaroa edo bigarrena egiteko

aukera izango dute gehien komeni zaien dataren arabera.

Lehenbiziko ikastaroa ekainaren 16an hasiko da eta uztailaren 21era arte luzatuko da, bigarrenkoa, berriz, ekainaren 23an hasiko da eta uztailaren 29an amaituko da. Orduetegiari dagokionez, bi ikastaroak goizeko 08:00etatik eguerdiko 12:10era izango dira eta tartean 10 minutuko atsedenaldia egingo da.

Modu honetan, Azpeitiko Udal Euskaltegiak ekaineko eta uztailako hilabeteetan eskainiko dituen klaseak egunero izango dira astelehenetik ostiralera bitartean, biak barne eta klaseen iraupena, berriz, lau ordukoa.

Izena lehenbailehen eman behar da Euskaltegian bertan edota 943 811947 telefono zenbakian.

Doan egiteko aukera

Ikastaroa egiteko izena ematen dutenek 139 euro ordaindu beharko dute, matrikula 124,80 euro da eta materiala 15 euro. Baina Azpeitiko Euskaltegiak baliabideak ematen ditu ikastaroa doan egin ahal izateko:

Asistentzia beka: ikastaroa amaitzen denean ikasleak ikastaroan zehar %85eko asistentzia erreala izan badu, ikastaroa doan aterako zaio.

Diru sarreraren arabera beka: diru sarrera jakinak dituzten familiei bideratuta.

Etxe beretik kide bat baino gehiago etortzen bada, bata matrikula osoa ordainduko du eta besteak erdia.

HABEren dirulaguntza: HABEren mailako azterketak edo hauen baliokideren bat gainditzen duten ikasleei bideratutakoa da.



Abian da ideia enpresarialen inguruko lehenbiziko lehiaketa

Loiola Berrikuntza Fundazioak bi inizatiba berri sarituko ditu

Loiola Berrikuntza Fundazioak ekintzailetasunaren kulturaren inguruan sentsibilizatzeko eta egungo sare enpresariala aberastuko duen oinarri teknologikoa duten enpresa berriak sortzea sustatzeko helburua izango duen Ideia enpresarial berrien I. Lehiaketa aurkeztu du.

Horretarako, Deusto eta Mondragon unibertsitateen babesa izango du, beraz, unibertsitateen botere berritzailea Urola Erdia bailaran enpresa berriak sortzeko erabiliko da, unibertsitateetan garatutako teknologiak eta ezagutza merkatura gerturatuz eta igaroz eta gure bailarako lan eta aktibitate ekonomikoa dinamizatuz.

Lehenbiziko lehiaketa hau, enpresa ekimen berrien inguruko izaera zientifiko-teknologikoko ideiak

aurkeztu dituen edozein ekintzaileri o talde ekintzaileri zuzenduta dago eta bi inizatiba berri sarituko dira ondorengo sariekin:

- Loiola Kabian hiru urteko kokapena enpresa ideien garapena eta sustapena egiteko.
- Ekintzaile/Txekintek programara sarrera enpresaren bideragarritasun azterketa eta martxan jartzea burutzeko, 60.000 euro arteko laguntzarekin Bic Gipuzkoa Berrilaren eskutik.
- Finantzazioa lortzeko laguntza, finantziazio publikoa zein pribatua.

Irabazleak 2 fasetan ezagutuko dira; batetik, Deusto eta Mondragon unibertsitateek ideia guztien artetik 5 onenak aukeratu dituzte eta jarraian, hautatuek 5-10 minutuko aurkezpena

egin dute 9 pertsonen osatutako batzorde baten aurrean. Batzorde honek erabakiko ditu azken bi sarituak. Lehiaketaren oinarriak Loiola Berrikuntza Fundazioaren web orrialdetik jaitsi daitezke, www.loiolaberrikuntza.org, eta proposamenak aurkezteko azken eguna uztailaren 22 izango da.

Ikasleen Curriculumak jasotzen

Era berean, Loiola Berrikuntza Fundazioak ikasketa teknikoan azken urteak egiten ari diren bailarako ikasleen datuak jaso nahi ditu, ikasketen amaierako proiektuak eskualdeko enpresetan egitea ahalbidetzeko asmoz. Horretarako, interesatuek inskripzio- orria Loiola Berrikuntza Fundazioaren web orrialdetik deskargatu dezakete, www.loiolaberrikuntza.org helbidean.



Soreasu bueltan da

Kultur espresio guztien adierazpen eta difusioa egiteko instalakuntza da

Orain sei urte bere ateak itxi eta gero, Soreasuko antzoki zaharra itxura berriarekin itzuli da. Urteak igaro ditu herriak areto egokirik gabe, baina zain egoteak merezi izan du eta Soreasu kulturguneko auditorioa zabaltu da dagoeneko.

Modu honetan, aurrerantzean bertan ospatuko dira Azpeitian urte guztian zehar izaten diren ekitaldi finko eta aipagarrienak, besteak beste, Euskal Antzerki Topaketak

**“bertan ospatuko dira
Azpeitian urte guztian
zehar izaten diren ekitaldi
finko eta aipagarrienak”**

edota dantza eta musika emanaldiak, izan ere, ekitaldi kulturalak eskaintzen dituzten talde desberdinei zuzenduta egongo da. “Horrelako instalakuntza behar zen kultur

espresio guztien adierazpen eta difusioa egiteko. Gainera, ekitaldi handiak egiteko gune aproposa da, 550 pertsonentzako lekua baitago”, agertu dute arduradunek.

Soreasu kulturgunea izango den arren, oraindik auditorioa bakarrik egongo da erabilgarri. Asmo handiko proiektua dela nabarmendu nahi dute ordezkariak eta herriko kultur taldeek euren lanak eta sormena lantzeko gunea bilakatuko da, “kultur talde bakoitza bere txokoa izango



du bertan eta emanaldi txikiarako aukera gehiago emango dituen beste gunea ere izango da etorkizunean, baina oraindik amaitu gabe dago. Poliki-poliki joango gara dena osatzen”.

Horrela, hasiera honetan ikuskizun desberdinen ekitaldiak hartzeaz gain, asteburuetan zine emanaldiak ikusteko aukera paregabea izango da. “Azpeitian betidanik egon da zinemarako zaletasuna eta berriro berreskuratzea nahi da. Horretarako eta azpeitiarrak herrian

gelditzeko asmoz, azken estreinaldiak eskainiko dira ostiral, larunbat, igande eta astelehenetan”, azaldu dute arduradunek.

Zinema

Auditorioak zinema estreinaldiak eskainiko ditu asteburuetan. Helduentzat saioak ostiral (21:30ean), larunbat (19:30ean eta 22:00etan), igande (19:30ean) eta astelehenetan (21:30ean) izango dira eta sarrera 5 euro ordaindu beharko da, astelehenetan izan ezik, 3 eurokoa

izango delarik. Haurrentzat, larunbat eta igandetan eskainiko dira pelikulak 16:30ean eta sarrera 3 eurokoa izango da. Gainera, 6 emanalditarako bonoa eskuratzeko aukera izango da leihatilan, eta bonoa 24 euro ordainduko da.

Aste bakoitzeko zine emanaldiak Udaleko www.azpeitia.net webgunean, kaleetan ezarri diren adierazguneetan eta plazako, Betharrameko eta Sanjuandegiko karteldegietan ezagutu ahal izango dira asteazkenetik aurrera.



Ezkutuko altxorra deskribituz

Bakardadearen Kapera ezagutzeko bisita gidatuak antolatu ditu Iraurgi Lantzenek

Soreasuko Sebastian Donearen parrokiaren baitan kokatzen den Bakardadearen Kapera Nicolas Saez de Elola kapitainaren aginduz eraiki zen XVI. mendean. Kapera, bere osotasunean, bai egitura arkitektonikoan, bai eskulturan eta hormetako pinturetan bai eta bertan diren apaingarrietan, errenazimentu klasiko bezala ezagutzen den estilokoa da eta aditu guztien esanetan, estilo honen inguruan Euskal Herrian eta estatu mailan aurkitu daitekeen altxor nagusienetakoa da dudarik gabe.

2002 eta 2006 urte bitartean egindako birgaitze eta zaharberritze lanei esker, kaperak jatorrian zuen

itxura berreskuratu du, baita horma-pinturaz osatutako dekorazioaren zati handi bat ere. Kaperaren zaharberritze lanak konplexuak izan ziren, bertako elementuak zirela eta: pintura muralak, bi erretaula, Nikolas Saez Elolaren hilobia, XVI. mendeko arkitektura izaerako elementu apaingarriak, era berean XVI. mendekoa den kupula bera... Gainera, zaharberritze lanetan egindako indusketaren ondorioz kanpai bat egiteko moldearen aztarnak eta garai ezberdinetan lurperatutako eskeletoak aurkitu ziren.

Kaperak duen balio historiko-artistikoaren eta ondare interesaren jakitun, Azpeitiko Udalak eta

Gipuzkoako Foru Aldundiak herritarrei ezagutaraztea nahi dute eta Iraurgi Lantzenek bisita gidatuak antolatu ditu ekainaren 18rako. Bisitak Miren de Miguelek gidatuko ditu, irakasle honek bere tesia Bakardadearen Kaperan oinarritu du eta bertako sekretu askoren jakitun da.

Bisita gidatuak

Ekainaren 18an.

Bi saio eskainiko dira; 12:00etan eta 13:00etan eta bakoitzak 50 minutuko iraupena izango du.

Interesatuak Parrokia aurrera agertu behar dute.

Informazio gehiagorako 943 15 18 78 telefonora deitu.

“Inoiz ikusi ez duen zerbait aurkituko du bisitariak”

Miren de Miguel,

Irakaslea eta Bakardadearen
Kaperan aditua



Zer aurkituko du bisitariak Bakardadearen Kaperan?

Inoiz ikusi ez duen zerbait aurkituko du; guztiz Errenazimendukoa den espazio bat, arkitektura, eskultura eta pintura aldetik. Horregatik, ikustera joaten denak aurretik horrelakorik ikusi gabe egongo da, ez Gipuzkoan ezta Euskal Herrian ere. Gutxienetakoa da eta horrek egiten du berezi izatea, ez hemen bakarrik, Espainia mailan ere. Nahiz eta barruan zer dagoen ez jakin, irtendakoan bisitariak “zer gauza polita” esatea espero dugu.

Nola deskribatuko zenuke Kapera hitz gutxitan?

Nik ustez, Errenazimenduko altxor bat dela. Lehen esandako arkitekturaz eta pinturaz gain, nola kontserbatu den urte guzti hauetan ere aipatzekoa da, oso ondo kontserbatuta dagoela eta paretak guztiz pintatuta dituelako. Hiru irizpide artistikoak batera joateak eta garai berdinean egiteak ere ematen diote garrantzi berezia.

Margoak esaten dutena ulertuz gero, oraindik eta garrantzia handiagoa duela Kaperak esan duzu inoiz. Zer dute bereiztat?

Jakin gabe zer dioten ikusten da zerbait garrantzitsua ikusten ari zarela, baina behin jakinda zer esaten den beste begi batzuekin ikusten da. Pareta guztiak margotuta daude eta Nicolas de Elolaren bizitzaren inguruko pasarteak adierazten dira, beraz, esan daiteke bere bizitza bertan pintatuta dagoela. Horrela, alde batetik bere alderdi militarrek azaltzen zaigu lantzen eszena batetan eta bestetik, birtuoso moduan agertzen da bera, bertuteak adierazten dira.

Harribitxi bezala kontsideratuta egon arren, Bakardadearen Kapera ez da oso ezaguna.

Egia da, izan ere, Errenazimenduko gauzak ikusteko beti kanpora jotzen dugu. Azpeitiko kasuan, gainera, ezkutuan egon da. Nahiz eta Parrokiara sartu, Kapera ez da ikusten, horregatik aukera paregabea dute herritarrek bisita gidatuetan altxorra deskubritzeko.

Loraldia hastear dago



Udaleko Igurumen sailak Loraldi 2011 lehiaketa jarri du abian, baina aurtengo ekimenak berrikuntza nabarmena izango du, izan ere, parte hartu nahi dutenek aurrez eman behar dute izena. Interesatuak ekainaren 17a baino lehen egin behar dute inskripzioa 943 15 17 13 telefonoan edota ingurugiroetxeafundazioa@azpeitia.net helbidera idatziz, izen-abizenak, helbidea, telefono zenbakia eta parte hartu nahi den kategoria azalduz. Herritarren ahalegina eskertzeko hiru sari banatuko dira: balkoi berritzaileenari, balkoi ederrenari eta baserriko atari ederrenari.

Bidegorri zatia itxita



azpeitiko Karmelo Etxegarai ikastolako Berdelari eraikineko pilotalekua estaltzen hasi dira dagoeneko eta lanek iraungo duten bitartean, pilotaleku ondotik igarotzen den bidegorria itxita egongo dela aurreratu dute Udal ordezkariak. Obrak aurrera eramateko beharrezkoak diren hesiak jarri dituzte eta horregatik, Perretxikoa eraikina eta Garmendipe auzoa bitarteko bidegorria ezingo da erabili hurrengo asteetan. Altuna y Uria enpresak egingo dituen lanak San Inazio jaiak bitartean luzatuko dira eta 300.000 euroko aurrekontua du proiektuak.

Lehenbiziko jardunaldi teknikoa



oiola Berrikuntza Fundazioak lehenbiziko jardunaldi teknikoa antolatu zuen maiatzaren 6an bere egoitzan eta bertan parte hartu zuten bailarako enpresa desberdinek. Jardunaldiaren helburu nagusia gaur egun Euskadiko zentro teknologikoak ikertzen ari diren teknologia berriak eta hauen ezagutza Urola Erdira ekartzeko bideak ezagutaraztea zen. Horretarako, Vicomtech-IK4 adituek joerak, erronkak eta kasu praktikoak aurkeztu zituzten eta amaieran, jardunaldira bertaratutako zenbait enpresek elkarlanean hasteko asmoa agertu zuten.

Antzerki Topaketako irudiak, ikusgai



Antzerki Topaketatako kartel lehiaketa abian jarri du dagoeneko Azpeitiko Udalak eta aurkeztutako proposamen guztiak ikusgai jarri dira Betharram eraikineko areto gelan. Aurtengo edizioan 36 lan aurkeztu dira guztira eta ekainaren 15era arte erakusketan jarrita egongo dira. Astelehenetik ostiralera bitartean 18:00etatik 20:00etara bisitatu ahalko da eta larunbat eta igandetan, berriz, 12:00etatik 14:00etara. Urteroko ohiturari jarraituz, erakusketa ikustera joaten direnek kartel gustukoena bozkatu ahal izango dute.

agenda

EKAINA

		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30			



10, ostirala

ANTZERKI TOPAKETA 2011
Ordua: 18:00etatik 20:00etara
Lekua: Betharram Aretoa

TUBA JAIALDIA
Ordua: 19:30ean
Lekua: Sanagustin kulturgunea

ZINEMA
Ordua: 21:30ean
Lekua: Soreasu kulturgunea

11, larunbata

TUBA JAIALDIA
Ordua: 19:30ean
Lekua: Sanagustin kulturgunean

ORGANO SAIOA
Ordua: 11:30ean
Lekua: Esklabak elizan

ANTZERKI TOPAKETA 2011
Ordua: 12:00etatik 14:00etara
Lekua: Betharram Aretoa

ZINEMA
Ordua: 16:30, 19:30 eta 22:00
Lekua: Soreasu kulturgunea

12, igandea

ESKOLARTEKO KROSSA
Ordua: 11:30ean
Lekua: Sanjuandegi auzoan

AIZKOLARIEN TXAPELKETA

Ordua: 12:00etan
Lekua: Izarraitz pilotalekua

XX.HELDUEN IBILALDI NEURTUA
Ordua: 06:00etan
Lekua: Plaza Nagusia

KITARRA EMANALDIA
Ordua: 19:30ean
Lekua: Sanagustin kulturgunea

MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA
Ordua: 13:00etan
Lekua: Udaletxeko arkupetan

KARTEL ERAKUSKETA
ANTZERKI TOPAKETA 2011
Ordua: 12:00etatik 14:00etara
Lekua: Betharram Aretoa

ZINEMA
Ordua: 16:30 eta 19:30ean
Lekua: Soreasu kulturgunea

13, astelehena

ANTZERKI TOPAKETA 2011
Ordua: 18:00etatik 20:00etara
Lekua: Betharram Aretoa

ZINEMA
Ordua: 21:30ean
Lekua: Soreasu kulturgunea

14, asteartea

ANTZERKI TOPAKETA 2011
Ordua: 18:00etatik 20:00etara
Lekua: Betharram Aretoa

15, asteazkena

ANTZERKI TOPAKETA 2011
Ordua: 18:00etatik 20:00etara
Lekua: Betharram Aretoa

17, ostirala

ARTE ETA DISEINUko ERAKUSKETA
Ordua: 18:00etatik 20:00etara
Lekua: Betharram aretoa

IRAURGI CUP FUTBOL
Ordua: 17:00etatik 20:00etara
Lekua: Kirolgunea

URRESTILLAKO JAIK
22:15 Pilota Partiduak:
22:30 Izer eta Alabier trikitilariak

ZINEMA
Ordua: 21:30ean
Lekua: Soreasu kulturgunea

18, larunbata

ARTE ETA DISEINUko ERAKUSKETA
Ordua: 18:00etatik 20:00etara
Lekua: Betharram aretoa

IRAURGI CUP FUTBOL
Ordua: 09:00etatik 20:00etara
Lekua: Kirolgunea
ORGANO EMANALDIA
Ordua: 19:00etan
Lekua: Urrestillako Elizan

URRESTILLAKO JAIK
17:00 Herri krosa
19:30 Bentazarreko Mutiko



Alaiekin kantujira goizalderarte

ZINEMA

Ordua: 16:30, 19:30 eta 22:00

Lekua: Soreasu kulturgunea

19, igandea

ARTE ETA DISEINUKO ERAKUSKETA

Ordua: 18:00etatik 20:00etara

Lekua: Betharram aretoa

AMETSEN FABRIKA

haurrentzat emanaldia

Ordua: 12:30

Lekua: Udaletxeko Arkupetan

IRAURGI CUP FUTBOL

TXAPELKETA

Ordua: 09:00etatik 20:00etara

Lekua: Kirolgunea

URRESTILLAKO JAIK

12:00 Meza Nagusia

12:45 Txistulariak

14:00 Jubilatuen bazkaria

16:00 Herri kirolak

ZINEMA

Ordua: 16:30 eta 19:30ean

Lekua: Soreasu kulturgunea

20, astelehena

ARTE ETA DISEINUKO ERAKUSKETA

Ordua: 18:00etatik 20:00etara

Lekua: Betharram aretoa

ZINEMA

Ordua: 21:30ean

Lekua: Soreasu kulturgunea

21, asteartea

ARTE ETA DISEINUKO ERAKUSKETA

Ordua: 18:00etatik 20:00etara

Lekua: Betharram aretoa

22, asteazkena

ARTE ETA DISEINUKO ERAKUSKETA

Ordua: 18:00etatik 20:00etara

Lekua: Betharram aretoa

MUSIKA ESKOLAKO JAIALDIA

Ordua: 19:30ean

Lekua: Soreasu Antzokian

23, osteguna

ARTE ETA DISEINUKO ERAKUSKETA

Ordua: 18:00etatik 20:00etara

Lekua: Betharram aretoa

URRESTILLAKO JAIK

20:00 Poteo herrikoia

21:00 Txupinazoa eta Herri Afaria

23:00 San Juan Zuhaitza sartzea

23:30 Dantzaldia Laket taldearekin

00:00 San Juan sua piztuko da

24, ostirala

ARTE ETA DISEINUKO ERAKUSKETA

Ordua: 18:00etatik 20:00etara

Lekua: Betharram aretoa

URRESTILLAKO JAIK

09:30 Dultzaineroekin diana

12:00 Meza Nagusia

12:45 Azpeitiko Udal Musika Banda

13:00 Erraldoiak eta Buru Handiak

16:00 Zezen Txiki eta Pottokak

18:00 Herri kirol apustua

20:00 Triki-bertso poteoa

00:00 Elektrotzaranga

ZINEMA

Ordua: 21:30ean

Lekua: Soreasu kulturgunea

25, larunbata

URRESTILLAKO JAIK

12:30 Sagardo dastaketa

15:30 Mus txapelketa

20:00 Triki-poteoa

21:00 Afaria eta kontzertuak

ZINEMA

Ordua: 16:30, 19:30 eta 22:00

Lekua: Soreasu kulturgunea

26, igandea

URRESTILLAKO JAIK

16:00 Puzgarriak eta zezen mekanikoa

18:30 Erraldoiak eta Buru Handiak

19:30 Afari merienda: Patata

tortilla lehiaketa

20:30 Triki-bertso poteoa

23:00 Zuhaitzaren entierroa

ZINEMA

Ordua: 16:30 eta 19:30ean

Lekua: Soreasu kulturgunea

Liburu bilduma, osatuta

Azpeitiko Herri Gutunaren 700. urteurrenaren inguruan idatzitako liburu guztiak aurkeztu ditu dagoeneko Udalak.

Modu honetan, bilduma osoa erosi zuten herritarrek azken bi liburuak jasotzera joan daitezke Kultura sailera.

Oraindik ere eskuratu daitezke:

Bilduma osoa; 70 euro

Liburu bakoitza; 15 euro



botikatxandak



ALBERDI. Jose de Artetxe 6, Tel.: 943 81 59 74
Ekainaren 4, 5, 7, 10, 23 eta 30ean.

ARANBURU. Plaza Nagusia - Goiko kalea 2
Tel.: 943 81 13 50
Ekainaren 2, 13, 14, 15, 16, 17, 18, 19 eta 21an.

BERISTAIN. Urbitarte auzoa 3, Tel.: 943 81 19 49
Ekainaren 3, 6, 11, 12, 22 eta 29an.

EIZAGIRRE. Enparan 29, Tel.: 943 81 12 74
Ekainaren 8, 24 eta 27an.

JACOME. Garmendi 21, Tel.: 943 08 02 58
Ekainaren 1, 9, 20, 25, 26 eta 28an.

